

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak Ingurumen Kudeaketako Basozaintza eta Kalitate Zerbitzua sortu du

*Erakunde berriarekin Basozaintza unitatearen posizionamendua indartuko da, eta unitatearen zeharkako izaera islatuko du*

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran foru-dekretu bat onartu du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren egitura partzialki aldatuko duena, eta, era horretan, Ingurumen Kudeaketako Basozaintza eta Kalitate Zerbitzua sortu da, lehen Sekzio-maila zuena. Organigraman izandako igoeraren bidez, kalitate-sistemen barne-prozesuak eta ezarpena hobetuko dira. Modu berean, Basozaintza prestakuntza Zerbitzu berrira adskribatuko da.

Halaber, aldaketarekin Berrikuntza, Barne Kalitate eta Europako Proiektuen Atala amortizatuko da; horrez gain, lehen unitate horretan zegoen Europako Proiektuen Negoziatua Lurralde eta Ingurumen Iraunkortasuneko Berrikuntza eta Ezagutza Zerbitzuaren Iraunkortasun, Ingurumen Hezkuntza eta Parte-hartze Publikoaren Sekziara adskribatuko da, eta funtzioak bere horretan mantenduko dira.

### Ezaugarri espezifikoak

Basozaintzak zenbait ezaugarri espezifiko ditu, erantzukizunari, lanaldiari eta pertsona-kopuruari dagokionean, besteak beste, eta Sekzioko maila hierarkikoari oro har esleitutako erantzukizunak eta eskumenak gainditzen dituzte.

Tartean aipatzekoa da pertsona-kopurua, honako hauek aurkitzen baitira: 10 guarda nagusi, 5 guarda nagusi ondoko eta 98 basozain; gainera, horiei gehitu behar zaizkie Negoziatuko 3 buruzagitza, administrari 1 eta Miluzeko finkako 2 langile (Iruña). Guztira, 119 pertsona dira, baina ziur aski datozen urteetan zaintzaile berriak sartuko dira.

Funtzioen artean nabarmentzekoak dira ingurumen-larrialdia artatzea, dedikazio eta erantzukizun osoarekin, eta Nafarroa osoan zehar hedatzea, jarduteko eremu zabala izanik. Dekretu berri hori onartuta, profil eta postu ezberdinak sartzeko prozesuari amaiera emango zaio, eta Ingurumeneko zaintzailearen irudi berriaren ikuspegi integrala agerian geratuko da.